

# EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASGINTZA 1987AN

*Donostia, 1988-IV-29*

*Gotzon Aurrekoetxea-  
Charles Videgain*

1987.urtean Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak aurrerapen nabaria izan du. Bi atal ezberdinetan gauzatzen da aitzinamendu hau: inkestagintza eta informatizapenean.

Hartan atzera ezinezko urratsak eman ditu lantaldeak, hainbat herritan inkestak jasoz eta emaitzak transkribatuz. Honetan lehen pausuak baino ez.

## 1. Inkestagintza

Urtearen lehen hilabeteetan inkesta-lanak erritmoa hartuz joan ziren poliki-poliki inkestagileek berezko abiada hartu arte.

Lan-taldea frogatu denean inoiz baino aurrerakuntza handiagoa eza-gutu du atlasgintzak urte honetan.

Denok dakikezuenez lan-taldea, inkestagintza arloan zazpi pertsoenez osotuta dago: G. Aurrekoetxea eta X. Videgain Zuzendaritza Teknikoki-deak; I. Atutxa, I. Etxebeste, eta K. Segurola denbora osoz; orduka arituz A. M. Echaide eta J. M. Etxebarria.

Aipatu zazpi pertsona hauen artean eta aztertzen dihardugun urtean 36 inkesta guztiz burutu dira, hau da, jaso eta transkribatu; beste 37 herritan inkesta egiten ari direlarik. Lurraldeka honako taula hau egin genezake:

	Guztira	Eginda	Egiten
Bizkaia	36	17	5
Araba	1	0	0
Gipuzkoa	36	14	12
Nafarroa	27	1	10
Lapurdi	15	1	3
Nafarroa Beherea	18	2	2
Zuberoa	12	1	5
<b>Guztira</b>	<b>145</b>	<b>36</b>	<b>37</b>

Inkestetarako 2.785 itaun dituen galdeketa erabiltzen da (lexikoa: 2.105; izen morfologia: 321; aditz morfologia: 260; sintaxia: 62; eta fonetika: 37 itaun).

Galdera hauez at testu libre bat ere jasotzen da; hizkuntz kontzientziari buruzkoa hain zuzen.

Itaun guzti hauek jasotzeko behar den denbora ez da toki guztietan berdina izaten. Faktore anitz da tartean: hala nola lekukoaren kalitatea (beronen jakintzaren arauera), berorren izaera (izan dadila patxadatsua, hiztuna, denari komentarioa ateratzen diona, urduria, hitz gutxikoa... denetarik aurkitzen baita gure baserriar, nekazari eta kanpainatarren artean), inkesta-egilearena...

Faktore hauek itzelezko eragina dute inkestaren aberastasun eta iraupenean. Horrela orain arteko inkestetan 18 orduetatik 42 orduetarako luzeera izan lezake. Eta tarte honek ez du esan nahi gutxi iraun duten inkestetan inkestagilea ez dela arduratu datuak zehatz eta argibideak eskatzen, ezta luzeegi (gure kalkuluetan esan nahi dut) ateratzen direnatan ez dela saiatu galderarekin bat ez zetozen eta lekukoak egiten zituen ohar, kontakizun eta abar mozten.

Eta datuak ematen hasi garenez, hona hemen orain arte egin diren inkestetan nolako denbora portzentaiak lortzen diren:

Orduak	Inkestak
< 20	4
20-25	10
25-30	13
30 >	4

Beraz, datu hauen arauera batzaz beste eta inkestako 26-27 ordu ateratzen dira.

Bada beste faktore askoren artean, kontutan izan behar dugun beste bat ere: inkesta-puntuaren kokapena. Inkesta-puntuak zenbat eta urrunago izan hainbat eta denbora gehiago “galtzen” da joan-etorrietan, eta ondorenez inkestak egiteko denbora gutxiago geratzen zaio inkestagileari. Iparralde eta Hegoaldeko inkesten kopurua neurtzeko behar denetako faktoretarik bat horixe dugu, hain zuzen ere. Hegoaldean hurbilen diren inkesta-puntuetarik hasi bada ere Iparraldean alderantziz egin baita neurri batetan bederen.

Lanaren abiadak ezagutu du aipatzea merezi duen akats bat baino gehiago ere. Hauen artean zera dugu nabariena: lan-tresnen matxurak. Tresnok egun osoz eta erritmo handiz erabiltzean uste eta nahi baino askoz arinago hondatzen izan dira. Arazo honek ekarri ditu bai buru-hausteak. Aipatu behar da baita guzti honez gain magnetofoni bat erre egin zela garraio istripu bat dela kausa. Gauzak horrela izanik tresna berri batzu erostea erabaki zen, lan-etenaldirik gerta ez zedin.

Eman dira datuak, baina nola ote gabilta proiektuan azaltzen ziren epeetatik? Proiektuak ezagutu du atzerapena inkestagintzari dagokionez. Gibelamendua bi arrazoi hauen bidez azaltzen dugu:

1. Lan-taldearen osoketa ustez baino berantago burutzea. Erabakia baino bost hilabete beluago hasi baitzen kanpo-lanetan.
2. Iharduncan aurkitu diren era ezberdinetako arazoak: izan dadila hastapeneko erritmo geldoa, arestian aipatu tresnen matxura ezohizkoa, zenbait zinten egoera txarra, gorago esan diren lekukoena izaera bereziak, gaisoaldiak, inkestagile edota lekukoena hutsegiteak, bete beharrezko administrazio lanak...

## 2. Inkesten azterketa

Burutzen ari ziren inkesten egokitasun eta homogeneitatea zaindu beharrak zenbait azterketa egitera eramane du Zuzendaritza Teknikoa.

Helburu horrekin lau barne-azterketa ezberdin burutu dira urtean zehar:

a) Maiatzean egin zen lehen balantzea. Xarles Videgainek lexiko gaiak hartuz jadanik inkesta eginda zegoen zenbait herritan, era ezberdinetako galdera batzuri emandako erantzunen zuzentasun eta zehaztasuna ikuskatu zuen. Adibide bat hartuz “prado/prairie” (41.2 galdera) kontzeptuaren zehazpen zuzena eta zehatza egin den, e.a.

b) Urriari beste hiru miaketa berri aurkeztu ziren inkestagileen bileran; lehena G. Aurrekoetxeak burutua (*EHHA: inkesten 2. azterketa*-

*dia*), zeinetan lexikoaz landako emaitzez aritzen baitzen; hots, morfologia, sintaxia eta fonetika arloetako erantzunen egokitasunez, hain zuzen ere.

c) Bigarrena zera da: X. Videgainen “Oharrak inkestagintzari buruz”. Lan honetan gaiaren ingurua arakutzen zen. Aurreko bi lanetan inkestaren kalitateaz ihardun bazen oraingo honetan inkestaren kantitateaz, nolabait esateko, arduratzen zen; hau da, galdetzen denaren inguruneaz, hain zuzen. Bi alderdi hartzen ziren kontutan: hizkuntzari buruzko oharrak eta entziklopediari buruzkoak. Haietan galderaren inguruan bildutako hitz interesgarriak, egitura sintaktiko ohargarriak, erregistro-mailari buruzko oharrak, lekukoaren meta-hizkuntzazkoak, esaera eta gonparaketak. Hauetan lekukoei esperientziak erakutsitako jakitatea, narrazio etnografikoak eta sineste edo praktikak.

d) Hirugarrena G. Aurrekoetxeak burututako “*EHHA*: inkesta eta zintak” dugu. Inkesta-puntu ezberdinetako inkesten iraupena zuen aztergai.

Azterketa hauek inkestagile bakoitzak beste lankideen lan-moldea jakin zezan burutu ziren.

### 3. Informatizapena

Inkestagintzan ezeze, informatizapenean ere aurreratu du proiektuak 1987. urtean zehar, gura adina ez bada ere.

Puntu honetako arazo larriena, hau da, Euskaltzaindia eta CNRSn arteko hitzarmena zuzentzen eta bideratzen eman da urte osoa. Hala ere ez da nahi bezainbat aitzindu, ezta gerorako oinarririk finkatu.

Itun hau ezinbesteko da, bestalde, orain arte Strasburgeko iker-taldearekin izan diren harreman pertsonalak ofizial daitezen, bi erakunderen arteko harremanak bihurtuz.

Baina oraindik ezin daiteke esan noizko izanen den kontratu hori, presa handikoa bada ere. Esan behar da, bide beretik segituz berreskuratu ezinezko denborara hurbiltzeko arriskutan gaudela une honetan.

Bien bitartean funtzionamendu-programa laburrak egin eta praktikan jarri ditu informatikalariak; jada, galdekizun osoa eta lan-fitxategi ezberdinak informatizatu direlarik.

Beraz, alor honetan datu prozesaketa eta kartografiarako programa nagusia da falta dena, zeina egiteko Strasburgen “Atlas linguistique et ethnographique de la Lorraine germanophone” egiten ari diren hizkuntzalari eta informatika arazoetarako dituzten laguntzaileekin izatea guztiz preminazko ikusten baita.

#### 4. Artxibaketa

Inkestak bildu ahala, eta materiale magnetikoa artxibatuz goazelarik buruan geroago eta kezka handiagoa sortuz doakigu, materialea ahal denik eta ondoen kontserbatzeko baldintza egokiak bildu asmoz.

Jadanik 1.000 ordu baino gehiago jasoak ditugu. Atlas lanak bukatzerakoan 3.500etik 4.000ra ordu izango ditugu bilduak. Aberastasun ikaragarria, sekulan Euskal Herrian zintatan bildu ez dena. Materiale uniformeak, Euskal Herri osoko eskualdetan materiale berdintsua biltzen duena.

Denok dakigu zenbat denbora eta izerdi kostatu den horrelako bilketa lan bat aurrera ateratzen: proiektua egin, dirua bildu, lan-taldea osotu, eta erosoena ez dena, materiale bilketa bera.

Hainbeste kostatako eta hain oparoa den materiale hau ezin da hor bazter batetan utzi ondo eta seguru kontserbatzeko behar beharrezko diren baldintzak jarri gabe.

Baina kontserbaketa bera ere ez da erraza zoritxarrez. Baldintza fisikoak egokiak behar ditu: gela edo lokal egokia, tenperatura jakina eta egonkorra, berdin hezetasunari dagokionez, hauts eza, kanpo magnetikorik eza, eta abar.

Bestalde, kontserbaketa on batetarako entretenimendu bat behar dute (“efecto copia” deitua ez sortzeko)...

Areago oraindik, ez da ahantzi behar adituek aholkatzen duten segurantzako kopia. Baina ez noa neurri hauei buruzko nire jarduna luzatzen, jadanik argitaratuak diren lanak jarraitu besterik ez baitira egin behar.

Gaur arte egoera koiuntural honetatik irteteko burdinazko armairuetan gordetzen ditugu, tenperatura egonkorra duen gela batetan. Baina argi daukagu epe laburrera soluzio-bide bat aurkitu behar dela.

Eta bide ezin-hobea litzateke Euskaltzaindian behin baino gehiagotan aipatu den “fonoteka” eraikitzea, materiale hori luzaroan kontserbatzea nahi badugu bederen.

Hemendik dei bat egiten diogu Euskaltzaindiari “fonoteka” hori eraikitzeko urratsak ematen has dadin, “Azkue biblioteka”ko erregela berezietako 4.4. saila garatuz edota beste erakunde batekin batera.

Beraz, eta amaitzeko, esan liteke bide onetik doazela Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren lanak nahiz aise uler daitekeen atzerapena ezagutu duen. Baina badela oraindik zenbait gauza eginkizun eskuartean.